



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek 2014ko Bizkaiko Aurrekontuak onetsi ditue

Gernikan, 2013ko abenduaren 20an

2014ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak gaur goizean onetsi dira, Gernikako Batzar Etxean egindako osoko bilkuran, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldearen aldeko botoei eta Socialistas Vascos (PSE-EE) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeen abstentzinoari esker. EH Bildu izan da kontu publikoek kontra agertu dan bakarra. Kontuek 6.919 milioi euroko zenbatekoa daukie –aurtengo ekitaldian baino %5,2 gehiago–, eta horietatik 1.502 barne kudeaketara bideratuko dira.

Bozketea, ordubete eta erdiko eztabaidaren ostean egin da. Eztabaidan, Batzarretako talde baktzak bere jarrerak defendidu ditu, esku hartzeko hainbat txandatan. Aurrekontuei buruzko Foru Arauak Bizkaiko Batzarren behin betiko onespena jaso dau bederatzi bozketa egin ostean, bat Sail baktxerako, eta beste bozketa bat Testu Artikulaua berresteko. Bozketa guztiek emaitza bera izan dabe: aldeko 22 boto (EAJ-PNV), 16 abstentzino (PSE-EE eta PP) eta kontrako 11 boto (EH Bildu).

Kontuen kontrako boto bakarra eta bere taldeak 2013ko azkenengo osoko bilkurarako erreserbautako 64 zuzenketa-eske parzialak defendidu dituan Joseba Gezuraga EH Bilduko ordeko bozeroaleak adierazo dauenez, Bizkaiko aurrekontuak “antisozialak, mugatzaileak eta matxistak dira”, interes “partidistei” erantzuten deusie eta EAJ-PNV, PP eta PSE-EE taldeen artean adostutako “kontra-erreforma fiskalaren seme-alabak dira”. Krisi garaietan, aurrekontuak “betikoei estutuz” egitea kritikau dau. Bere taldearen zuzenketa-eskeak defendidu ditu, zuzenketa horreekaz koalizino abertzaleak bultzada handiagoa emon gura izan deutseelako gizarte arloko gastuei, eta ekonomia bultzatzeko proposamenak jasoten ebezalako, ondoko lurraldean jeltzaleakaz adostutakoak gogoratuz. “Gipuzkoarako onak badira, zergatik ez dira onak Bizkairako?”, galdetu deutso jeltzaleen taldeari.

Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, Jon Andoni Atutxak, sozialistek eta popularrek adostasunak lortzeko erakutsi daben “jarrerea” eskertu dau, taldeen artean desbardintasanak dagozan arren. Bere eretxiz, onartutako kontuen helburua “gizarte zerbitzuei eustea, enpleguari eusten laguntzea eta lanpostu barriak sortzea eta jarduera ekonomikoa eragingo daben proiektuetan eta azpiegituretan inbertsinoagaz jarritzea da”. Bere parte hartzean, batzarkide jeltzaleak, EH Bilduk kontuen negoziazioari jagokonez erakutsi dauen jarrerea kritikau dau. “Ezinezko planteamenduak egiten ditue, bilatzen daben erantzun bakarra ezezkoa dalako”. Koalizino abertzalearen jarrera “maximalistak” kritikau ditu, bere alderdiak Gipuzkoan erakutsi dauen jarrera “konstruktiboagaz eta arduratsugaz” alderatuta. Talde horren jarrera “burugogorraren eta itxiaren” ondorioz, “Gipuzkoan posible izan dana, hemen –Bizkaian–, ezinezkoa izan da”.

PSE-EE eta PP taldeak, astearen hasieran euren zuzenketa-eskeak onartzen zirala ikusi eta gero heldu dira Batzarretako azkenengo izapide honetara, kontuak negoziatuko fasean Aldundiagaz eta EAJ-PNV taldeagaz lortutako akordioei esker. Alderdi biek “desbardinaren arteko akordioen”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

garrantzia azpimarratu dabe, horri esker lurraldeko kontuak “hobetu” ahal izan diralako, bizkaitar guztien mesederako. “Danok arindu behar izan doguz geure jarrerak”, adierazo dau Gonzalo Zorrila-Lequerica batzarkide popularrak. Popularrak gogoratu dabenez, adostu diran euren zuzenketa-eskeen helburua Aldundiko sail bi hobetzea da, Gizarte Ekintza eta Ekonomia Sustatzeko Saila, gizarteko hainbat talderi laguntzeko eta enplegua sortzeko eta ekonomia bultzatzeko, merkataritzaren arloan zentratuz.

Ildo berari jarraituz, Iñaki Egaña talde sozialistako bozeroaleak, akordioa “konfiantza sortzen dauen” tresna dala adierazo dau. “Ez dira gure aurrekontuak”, azpimarratu dau, baina “enplegua sortzeko, gizarte arloko gastua berreskuratzeko eta itxaropena itzultzeko” balioko daben kontuak dira. Azpimarratu dauenez, talde sozialistak emondako laguntzaren zergaitia, berrikuspen fiskal “progresiboa eta progresista” gauzatu dala, eskualde mailako enplegu planak bultzatu dirala eta azpiegituren aldeko apustua egin dala izan da. Azpiegitura horreen artean Ermuko saihebidia edo Ansioko Lantegi arteko errepidea dagoz, “aberastasuna sortuko daben” elementu moduan.

JASOTAKO ZUZENKETA-ESKE PARZIALAK

Sail bakotzak onartu dituan aurrekontuetako zenbatekoak aste honen hasieran egituratu ziran, zuzenketa-eske parzialei buruzko eztabaidetan. Bizkaiak 2014rako izango dauen aurrekontuak aldaketak jaso ditu Gizarte Ekintza, Kultura, Herri Lan eta Garraio, Ekonomiaren Sustapen eta Ingurumen sailen programetan eta Testu Artikuluan eragina izango daben 23 zuzenketa-eske parzial sartu ostean.

Azkenean, Bizkaiko Foru Aldundiak bere kudeaketarako eukiko dauen zenbateko ekonomikoa holan banatuko da bere zortzi sailen artean:

- Gizarte Ekintza Sailak 488.150.548 euro izango ditu.
- Herri Lan eta Garraio Saila, 321.169.595 euro.
- Ogasuna eta Finantzak, 125.389.143 euro.
- Ekonomia Sustatzeko Saila, 83.556.103 euro.
- Ingurumena, 76.497.937 euro.
- Lehendakaritza, 73.361.460 euro.
- Kultura, 61.447.588 euro.
- Nekazaritza, 46.396.108 euro.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales aprueban los Presupuestos de Bizkaia para el año 2014

Gernika, a 20 de diciembre de 2013

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2014 han sido aprobados esta mañana, en un pleno celebrado en la Casa de Juntas de Gernika, gracias al apoyo del grupo Nacionalistas Vascos (PNV) y la abstención de Socialistas Vascos (PSE-EE) y Populares Vizcaínos (PP). Solo EH Bildu ha rechazado unas cuentas públicas que alcanzan un importe de 6.919 millones de euros –un 5,2% más que en el presente ejercicio–, de los que 1.502 millones son para gestión propia.

La votación se ha producido tras un debate de hora y media de duración en el que los cuatro grupos junteros han defendido sus posturas en varios turnos de intervención. La Norma Foral de presupuestos ha recibido el plácet definitivo del Parlamento de Bizkaia después de producirse nueve votaciones, una por cada Departamento y otra para ratificar el Texto Articulado, todas ellas con el mismo resultado: 22 votos favorables (PNV), 16 abstenciones (PSE-EE y PP) y 11 votos contrarios (EH Bildu).

El portavoz suplente de EH Bildu, Joseba Gezuraga, que defendía el único voto contrario a las cuentas y las 64 enmiendas parciales reservadas por su grupo en lo que ha sido el último pleno del año 2013, ha tachado los presupuestos de Bizkaia de “antisociales, restrictivos y machistas” que atienden a necesidades “partidistas” y son “hijos de la contrarreforma fiscal” acordada entre PNV, PP y PSE-EE. Ha criticado que, en tiempos de crisis, los presupuestos se hagan “apretando a los de siempre”. Ha defendido sus enmiendas, ya que con ellas la coalición abertzale pretendía añadir un mayor impulso al gasto social y propuestas para la reactivación económica, recordando así las acordadas con los jeltzales en territorio vecino. “Si son buenas para Gipuzkoa ¿por qué no va a ser buenas para Bizkaia?”, ha preguntado dirigiéndose a la bancada jeltzale.

Por parte del grupo Nacionalistas Vascos, Jon Andoni Atutxa ha agradecido la “disposición” de los socialistas y populares para lograr consensos, pese a las diferencias. Según él, las cuentas aprobadas pretenden “mantener los servicios sociales, fomentar el mantenimiento del empleo y la creación de nuevos puestos de trabajo y mantener la inversión en proyectos e infraestructuras que generen actividad económica”, ha resumido. En su intervención, el apoderado jeltzale ha criticado la postura de EH Bildu con respecto a la fase de negociación presupuestaria. “Plantean imposibles porque solamente buscan el no por respuesta”. Ha criticado esta postura “maximalista” de la coalición abertzale, en contraposición con la postura “constructiva y responsable” de su partido en Gipuzkoa. La actitud “intransigente y cerril” de este grupo “ha hecho que lo que es posible en Gipuzkoa, aquí –en Bizkaia- no lo sea”.

PSE-EE y PP llegaban a este último trámite parlamentario del presupuesto tras ver como se aprobaban sus enmiendas a principios de esta semana fruto del acuerdo que habían alcanzado



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

con la Diputación y el PNV en la negociación de las cuentas. Ambos partidos han resaltado la importancia de los “acuerdos entre diferentes” lo que ha permitido “mejorar” las cuentas del territorio en beneficio de los vizcaínos. “Todos hemos cedido”, ha señalado el juntero popular Gonzalo Zorrilla-Lequerica. Los populares han recordado que sus enmiendas aceptadas pretendían mejorar dos áreas de la Diputación como son Acción Social y Promoción Económica, para ayudar a diversos colectivos sociales y a la creación de empleo y reactivación económica, poniendo el ojo en el sector comercial.

En la misma línea, el portavoz del grupo socialista, Iñaki Egaña, ha destacado el acuerdo como herramienta “generadora de confianza”. “No son nuestros presupuestos”, ha recalcado, pero son unas cuentas que servirán para “crear empleo, rescatar el gasto social y devolver la esperanza”. Ha destacado que el apoyo socialista viene motivado por la materialización de una revisión fiscal “progresiva y progresista”, por el impulso a los planes de empleo comarcales y por la apuesta por las infraestructuras, como la variante de Ermua o la carretera Interfábricas de Ansio, como elementos de “generación de riqueza”.

ENMIENDAS PARCIALES RECOGIDAS

Las cuantías presupuestarias aprobadas para cada departamento se moldearon a principios de esta semana en las comisiones en las que se debatían las enmiendas parciales. El presupuesto de Bizkaia para el año 2014 se ha modificado tras la incorporación de 23 enmiendas parciales que afectan a diferentes programas de los departamentos Acción Social, Cultura, Obras Públicas y Transportes, Promoción Económica y Medio Ambiente, y al Texto Articulado de la Norma Foral.

Al final, el montante económico que la Diputación Foral de Bizkaia tendrá para gestión propia queda repartido de la siguiente manera entre sus ocho departamentos:

- Acción Social, contará con 488.150.548 euros.
- Obras Públicas y Transportes, 321.169.595 euros.
- Hacienda y Finanzas, 125.389.143 euros.
- Promoción Económica, 83.556.103 euros.
- Medio Ambiente, 76.497.937 euros.
- Presidencia, 73.361.460 euros.
- Cultura, 61.447.588 euros.
- Agricultura, 46.396.108 euros.